

BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZA ESKATZEN DUTENEK IRUNGO UDALAREN/IRUNVIREN DATU-BASEAN IZENA EMATEKO BALDINTZAK

Eskatutako gutxieneko baldintzak betetzen dituzten eskaerak soilik onartuko dira.

Hona hemen baldintza horiek:

1) ETXEBIZITZA BEHARRA:

- Bizikidetzta-unitateko kideetako inork ere ez du izango etxebizitzarik jabetzan, jabetza soilean, azalera-eskubide edo usufurkturik, eskaera hori egin aurreko bi urteetan. Legeak aurreikusten dituen salbuespenak salbu.

2) EGOITZA:

- Azken 20 urteetan gutxienez 10 urtez Irunen erroldatuta egon izana. Ez da beharrezkoa eskaera-egunean Irungo Biztanleen Udal Erroldan izena emanda egotea.
- Irunen erroldatua egotea.
- Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea.
- Ez zaie eskatuko gutxieneko erroldatze-betekizuna betetzea genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatzen duten emakumeei, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburuaren 2006ko urriaren 4ko Aginduan hala jasotzen baita, agindu hori genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako etxebizitzaren alorreko ekintza positiboko neurriei buruzkoa baita.

Honako hau izango da lehentasuna IRUNVIk egiten dituen esleipenetan:

- 1.- Lehenengo, azken 5 urteetan Irunen erroldatuta dauden pertsonak edo azken 20 urteetan gutxienez 10 urtez Irunen erroldatuta egon direnak.
- 2.- Bigarren, Irunen erroldatutako pertsonak.
- 3.- Hirugarren, Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta dauden pertsonak.

3) DIRU - SARRERAK:

<u>EROSKETA</u>	<u>ALOKAIRUA</u>
<ul style="list-style-type: none">• BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK: Berezi Erregimena: 9.000 € - 25.000 € Erregimen Orokorra: 12.000 € - 39.000 €• ETXEBIZITZA TASATUAK: 15.000 € - 50.000 €	<ul style="list-style-type: none">• BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK: Berezi Erregimena: 3.000 € - 25.000 € Erregimen Orokorra: 9.000 € - 39.000 €• ETXEBIZITZA TASATUAK: 15.000 € - 50.000 €• ERABILERA-LAGAPENENKO ERREGIMENENKO ETA ZUZKIDURA-BIZITOKIA 3.000 € - 39.000 €

OHARRA: Mugikortasun gutxituko ez-gaituen eta adimen-urrikoen kasuan, alokairu-erregimenean babes ofizialeko etxebizitzaren aukera izateko, ez da eskatuko gutxieneko diru-sarrerarik, eta jabetza erregimenean edo azalera-eskubidekoan, nahikoa izango da 3.000 euroko diru-sarrera minimoa akreditatzea.

Era berean, ez zaie gutxieneko diru-sarreraren baldintza betetzerik eskatuko genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatzen duten emakumeei.